

musika

■ Bilbo

● **Ikasbide abesbatza, Hortz Muga taldea** eta **Salbatzaile dantza taldea**, Plaza Barrian, 13:15etan. *Umeen Jaia*.

■ Murueta

● **Quatro Clavos** Benta Barri tabernan, 02:00etan. Azken kontzertua.

■ Tolosa

● **Musika Banda** Berdura Plazan, 12:30etan, eta Plaza Zarrean (herriko abesbatzekin batera), 20:30etan.

dantza

■ Arrasate

● **Mutil Dantza** eta **Herri Dantza** plazan, 19:30etan. *Olentzeroren agurra*.

bertsolaritza

■ Billabona

● **Inaxio Iguaran, Ander Barandiaran** eta **Amaia Agirre** Amasan, baserriz base-ri, egun osoz.

erakusketak

■ Bilbo

● **% 100 Cubano**. Jose Alberto U' iernaren argazkiak La Bolsa gizarte-etxean, urtarrilaren 6a bitartean.

● **Juan Gorritiren** egurrezko eskulturak La Brocha arte galerian, urtarrilaren 7a arte.

● **Ballesteros, Corral-Libano, Quincoces, Ortun, San Felices, Richard, Zarate** eta **Zalbideren** lanak Erreka 2000 aretoan, urtarrilaren 7a arte.

● **Area dos** erakusketa kolektiboa Rekalde aretoan, urtarrilaren 10a arte.

● **San Joan apostulua eta pozoiindutako kopa** lanaren zaharberritzea. Arte Eder Museoan, urtarrilaren 10a bitartean.

● **Imanol Lejonagoitiaren** argazkiak Sarean (Mariaren Bihotza plaza, 4).

● **Melquiades Alvarez-en** pinturak Amaste arte aretoan, urtarrilaren 15a bitartean.

● **Paisajes vitales**. M^a Angel Manovellen argazkiak Bilbaofot 2001 galerian, urtarrilaren 16a arte.

● **Estructuras abiertas**. Javier Urquijoren pintura eta marrazkiak Aritza galerian, urtarrilaren 16a arte.

● **Iñaki de la Fuente-ren** lanak Windsor Kulturgintza aretoan (Juan de Ajuria-guerra, 14), urtarrilaren 31a arte.

● **Robert Rauschenberg** estatubatuarren lanak Guggenheim museoan, martxoaren 7a bitartean.

● **Aurelio Arteta, funtsezko begirada**. Arte Eder Museoan, martxoaren 15era artean.

■ Donostia

● **Gabonetako merkatua**. Hainbat artisten lanak: Dora Salazar, Nori Ushiji-



Eguberriak eta jaiotza biblikoak Eibarko Portalean

Irungo seme Bernardino Bienabe Artia (1899-1987) margolariak Eguberriak hartu zituen gaitzat bere lan asko eta askotan, eta pintura horien erreproduzio fotografikoak jarri dituzte ikusgai Gipuzkoako Belenzaleen Elkartek eta Kutxa Fundazioak Eibarko Portalea kultur etxean. Jaiotza biblikoak ere ezarri dituzte, «jaiotza bibliko bat egiteko asmoa hartzen dutenei ideia sorta bat, argitasun edo norabideren bat emateko». Hala, Lurralde Santuko hainbat leku biltzen dira erakusketan: Jerusalem, Samaria, Palestina, Galilea... Horiek erakitzeko, Espasa & Cía argitale-
txeak bere garaian argitaratutako *La Tierra Santa. Su historia, sus monumentos, sus recuerdos* izenburuko liburua izan dute inspirazio iturri Gipuzkoako Belenzaleen Elkartekoek; liburua idazlea Victor Bebbardt da, marrazkilaria Diosdado Juaniz, eta margolaria Mari Paz Sainz Ubarretxena, azken biak Belenzaleen Elkartekoak. Portaleko erakusketa bitxi hau urtarrilaren 4a arte izango da zabalik, 19:00etatik 21:00etara aste egunetan, eta 12:00etatik 14:00etara, berriz, larunbatetan.

ma, Paco Aguilar, Jose B. Rocandio, Marta Cardenas, Koldobika Jauregi, Eduardo Txillidas Belzunce, Zume-
ta... Arteo galerian.

● **Movimiento de trabajadores rurales** *Sin Tierra*. Sebastian Salgado-ren argazkiak EHUren Psikologia eta Kimika fakultateen artean den karpan, abenduaren 31a arte.

● **Aulkia**. Arkitektura Eskolako ikasle-
ren lanak, Arkitektoen Elkargoan (Frantzia hiribidea, 1), urtarrilaren 8ra arte.

● **Teresa Lopez Western-en** margoak Amara Plaza hoteleko La Ola taber-
nan, urtarrilaren 9a arte.

● **Etxean**. Amondarain, Francis Bacon, Alfonso Berridi, Eduardo Txillida, Cristina Iglesias, Pello Irazu, Manu Muniategiandikoetxea, Juan Muñoz, Andres Nagel, Alberto Peral, Ana Isabel Roman, Sean Scully eta Dario Urzayren lanak, DV Galerian (San Mar-
tin, 5), urtarrilaren 23a arte.

● **Lascaux-Ekain: Etorkizuneko faksimile-
ak**. Aranzadi Zientzia Elkartaren Zo-
rroagako egoitzan, urtarrilaren buka-
era arte.

● **Transgeneric@s**. Koldo Mitxelena
kulturgunean, otsailaren 6a arte.

■ Ermua

● **Arrantza**. Ramon Serras-en argaz-
kiak Udaletxeko Ganbaran, abendu-
aren 27ra arte.

■ Gasteiz

● **Con-figuraciones. Un paseo por el Se-
rengeti**. Fernando eta Vicente Roscu-
bas anaien lanak, Amarika aretoan,
urtarrilaren 10a arte.

● **Margolari Kontuak**. Pedro Egiluzen
margoak, Montehermoso kulturgune-
ko Oihanederra gunean, urtarrilaren
10a bitartean.

■ Gernika-Lumo

● **XX urtez 'Deia'-n argazkigile**. Angel
Ruiz Azuaren lanak, Euskalerrria mu-
seoan, abenduaren 29ra arte.

● **Argazki egunak, olerki egunak**. Kultur
etxean, urtarrilaren 9ra arte.

■ Getxo

● **Charlene Newell** estatubatuarren
eskultura txikiak Algortako Erakus-
keta Aretoan, abenduaren 30a arte.

● **Julia Torio-ren** oleo, akuarela eta
ikatz marrazkiak Erromoko Erakus-
taretan, abenduaren 30a arte.

■ Hendaia

● **Alban Larousse-ren** margoak media-
tekan, hilabete bukaera arte.

■ Irun

● **Colectivo Tres-en** zeramikak Kabigo-
rri Ateneoan, abenduaren 31a arte.

■ Iruñea

● **Manolo Valdes** valentziarraren koad-
roak, eskulturak eta obra grafikoak.

Iruñeko Aurrezki Kutxaren Garcia
Castañon aretoan, urtarrilaren 10a
bitartean.

● **Pablo Picassoren Suite Vollard** serie-
ko grabatuak, Castillo de Maya areto-
an, urtarrilaren 10a bitartean.

■ Legazpi

● **Argizaiola Saria 98**. Euskal Herriko
lehiaketetan saritutako argazkilarien
30 lan, Kultur Etxean, abenduaren
30era arte.

● **Mattin** EGUNKARIako marrazkilaria-
ren komikiak Arrano tabernan, urta-
rrilaren 5a bitartean.

■ Tolosa

● **Ana Isabel Roman** eta **Eduardo Lopez-
en** margoak Aranburu jauregian, ur-
tarrilaren 9a arte.

■ Zarautz

● **The Subject object**. Mariano Zuzuna-
garen argazki erakusketa, Photomu-
seum-en, urtarrilaren 4ra arte.

■ Zumaiia

● **Dora Salazar** eta **Arantxa Gereñoren**
eskulturak eta pinturak Laia Euskal
Herriko Artisau Produktu Museoan,
abendua amaitu arte.

lehiaketak

■ Arrasate

● **Ipuin, poesia eta bertso paper lehiake-
tak**. Atal guztietan gaia librea izango
da, eta poesiaren kasuan baita kon-
posaketa eta errimak ere. Bertso-pa-
perei dagokienez, zein doinutarako
idatzi diren adierazi behar da. Euska-
raz idatzitako obra orijinalak eta inoiz
argitaratu edo saritu gabeak bakarrik
aurkeztu daitezke. Idazlanak, hiru
kopiatan, tarte bikoitzez eta orrialde
bakar batetik makinaz idatzita aur-
keztu behar dira. Lan guztiak lema

batekin sinatuko dira. Haiekin batera
sobre itxi bat aurkeztuko da, azalean
lema eta barruan egilearen datuak
eta telefonoa aipatuz. Lanak helbide
honetara bidaliko dira: AED Elkartea,
'Arrasate 98' lehiaketak, Pablo Uranga
kalea, 4 behea, 20500 Arrasate,
1999ko otsailaren 26a baino lehen.

■ Getxo

● **Getxoko Nazioarteko Jazzaldiko Talde
Lehiaketa**. Getxo Jazz elkarteak ireki
du jadanik 23. Nazioarteko Jazzaldi-
ko Talde Lehiaketarako izena emate-
ko epea. Jazzaldiaren lehen hiru egu-
netan egingo da lehiaketa —uztaileko
lehen hiru egunetan—, eta Europako
edozein talderi dago zuzenduta, parte
hartzen dutenen gehieneko adina 30
urtekoa izanik. Hautapen batzordeak
izena eman duten taldeen artean sei
aukeratuko ditu. Irabazleak 500.000
pezetako saria jasoko du eta, gainera,
disko bat grabatzeko aukera izango
du. Izena emateko epea 1999ko otsai-
laren 13a arte izango da zabalik.

■ Mungia

● **I. San Antontxu Bertsopaper Lehiaketa**.
Taket bertsoari buruzko antolatua
du. Partehartzaileak multzo bitan
banatuko dira: 18 urtera artekoak eta
hortik gorakoak. Gazteek gutxienez
sei bertso eta gehienez zortzi egin be-
harko dituzte eta, helduek, gutxienez
zortzi eta gehienez hamabi. Gaia eta
neurria libreak izango dira, bertsoak
inon argitaratu gabeak, eta sari bere-
zia egongo da bizkaieraz egindako
bertso sortarik onenarentzat. Parte
hartzaile bakoitzak nahi beste bertso
sorta bidalitzake. Nora: 'Torrebillena
Kultur Etxea, Bekokale 3, 48100
Mungia'. Lanak jasotzeko azken egu-
na abenduaren 31a izango da.

■ Pasaia

● **Udal Euskategiko V. Ipuin Lehiaketa**.
Nahi duen orok har dezake parte.
Ipuinak jatorriz euskaraz idatziak eta
argitaragabeak izango dira, eta gaia
librea. Lanek gutxienez bost foliotako
luzera izango dute eta makinaz idatzi
beharko dira, biko tarteaz. Sari bakar-
rra emango da; 45.000 pezetakoa.
Ipuinak helbide honetara helaraziko
dira: 'Udal Euskategia, Euskadi
Etorbidea, 61, 20110 Pasaia'. Aurke-
zteko epea urtarrilaren 8an itxiko da.

■ Portugaleta

● **XIII. Komiki Lehiaketa**. Udaleko Kultur
ra sailak egin du deialdia. Edonork
hartu dezake parte. Gaia eta teknika
libreak izango dira, baina komikiko
pertsonaiek edo protagonistek oriji-
nalak eta inon argitaratu gabeak izan
beharko dute. Zuri beltzean edo kolo-
retan egin ahalko dira lanak, euska-
razko zein gaztelarazko errotuluekin.
18x24 zentimetroko neurria izango
dute eta lau orrialdetan aurkeztu be-
harko dira. Sari bakarra banatuko
da. Udalean bertan utzi ahalko dira
lanak, edota honako helbidera bidal-
tu: 'Santa Klara kultur etxea, Casilda
Iturrizar z/g., 48920 Portugaleta, Bil-
kaia'. Urtarrilaren 15ean amaituko
da jasotzeko epea.

bestelakoak

■ Bermeo

● **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak**
Arta frontoian, 11:30etan. UEMAK
antolatuta. Kultur Elejira 98.

■ Elorrio

● **Tutik ere Clowns pailazoan Pan pan
hasteko, pan bukatzeko** obra, Arriola
kultur aretoan, 17:00etan.

■ Zeanuri

● **Marsel magoa** Kultur Etxean,
18:00etan.



Bilboko XVI. Artisautza Azoka zabalik dago Arenalean,
11:00etatik 14:30etara eta 17:00etatik 21:30etara.

XOUSE SIMAL